

## **ANIKOTE LEITZA S.L. UDALAREN SOZETATE PUBLIKOKO GERENTE LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA, HAUTAPROBEN BIDEZ**

Hona deialdia arautuko duten oinarriak:

### **OINARRIAK**

**Lehena.-** Xedea. Deialdia egiten da GERENTE lanpostuan ariko diren izangaien zerrenda bat osatzeko hautaprobek bidez, ANIKOTE LEITZA S.L. udal sozietate publikoan dagoen lanpostu hutsa betetze aldera.

**Bigarrena.-** Kontratazioaren baldintzak eta eginkizunak.

Aukeratzen den pertsonari kontratua egiten zaio borondatezko eszedentzia ordezkatzeko, eta urtean 40.733 euroko ordainsari gordina jasoko du. Eszedentzia epea igarota itzulera gauzatuko ez balitz, kontratua mugagabe bihurtuko da.

Aukeratzen den pertsonak, oro har, eginkizun hauek izanen ditu:

- Leitzako kirol-instalakuntzak kudeatzea (kiroldegia, pilotalekua, udako igerilekuak eta futbol-zelaia).
- Kiroldegiaren kirol-programa prestatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
- Kirol espazioen okupazioa eta alokairuak kudeatzea.
- Instalazioetan ematen diren eta kontratu honen xede diren zerbitzuetako langile guztien koordinazio orokorra egingo du, bai eta haien funtzionamenduaren jarraipena egin, beharrezkoak diren ordezkapenen zerrendak sortu eta edozein gorabeheraren aurrean erantzun ere, eta, behar izanez gero, langile kualifikatuekin ordeztuko ditu.
- Langileak aukeratzeko oinarriak prestatzea, eta langileak bilatu, bildu eta aukeratzeko prozesuak kudeatzea formularik egokien bidez, eta beharrezkotzat jotzen duenean, kanpo aholkularien partaidetza eskatzea (NAPI, SNE, beste batzuk...).
- Langile berriak artatuko ditu, eta lanposturako behar duten prestakuntza eta izan ditzaketen birziklatzeak (prebentzioa, langileen balio-aniztasuna, DEA, garbiketak, sarbideen kontrola...) eguneratuta izateaz arduratuko da.
- Prebentzio arloko enpresarekin batera, Lan Osasun arloko prozesuak gauzatzeaz arduratzea: lan arriskuen ebaluazioa, osasuna zaintzea, lan prebentzio arloko prestakuntza, norbanakoen babeserako ekipoak, etab.
- Enpresako langileek kontratatutako zerbitzu ezberdinetan egiten dituzten lanak gainbegiratuko ditu.
- Enpresako langileen eta udaleko ordezkarien arteko lotura izango da, eta sor daitezkeen eskaera eta behar guztiak azken horiei emango dizkie.
- Instalazio bakoitzeko zerbitzuak koordinatuko ditu, zerbitzu bat beste zerbitzu batek baldintzatzen duen alderdietan.
- Asebetetze-inkestak egiteaz eta Kirol Zerbitzuari emaitza transmititzeaz arduratuko da.
- Aholkularitzako berezko kudeaketa eginkizunak (nominak, aseguruak, kontratuak eta prebentzioa) gauzatzeaz arduratuko da. Enpresak kontratatuta duen aholkularitzaren laguntza izanen du.
- Kirol instalazioetako materialaren inbentarioa eguneratuta eramanen du.

- Enpresa publikoaren urteko aurrekontua osatuko du.
- Enpresa publikoaren gastuak eta sarrerak kontrolatuko ditu eta aholkularitzaren emaitzekin bat datorrela egiaztatuko du.
- Sozietate Publikoaren dokumentu sistemez arduratuko da.
- Ezagutza teknikoak ematea, udal plangintza prestatzeko ekintzak eta neurriak proposatuz.
- Kirol instalazioetan ezarritako protokolo edo ekintza guztiak proposatu eta gainbegiratzea.
- Kirol instalazioetako kirol ekipamenduen eta bitartekoen erabilera, kontserbazioa eta mantentze-lanak ikuskatzea.
- Legeak eskatzen dituen zerbitzuak azpikontratatzeko eta kontratuak betetzen direla egiaztatzea.
- Udako igerilekuak martxan jartzeko beharrezkoak diren lanak planifikatzea, beharrezkoak diren kontratuak gauzatzea (laborategia, produktu kimikoak,...) eta hauek betetzen direla konprobatzea.
- Udalaren eta enpresaren izenean kirol-alorrean eskatu daitezkeen dirulaguntzak kudeatzea.
- Kirol errezetaren programa koordinatu eta kontrolatzea.
- Harrerako lanak gainbegiratzea, inskripzio-prozesuak kontrolatzea eta datuak modu zuzenean egokitzen direla konprobatzea.
- Kirodegiko Web-app-a konfiguratu, egokitu eta eguneratzea.
- Kirol zerbitzuaren informazioa zabaltzeaz arduratuko da (Web-app, sare-sozialak, Whatsapp taldea, etab.).
- Aipatutakoez gain, lanpostuak eskatzen dituen ahalmen eta gaitasun profesionalekin koherente izanik, eta Sozietate Publikoaren/Arloaren etorkizuneko bilakaerarekin bat etorriz, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea.

**Hirugarrena.-** Lanpostuari dagokion ordainsaria 40.733 eurokoa (gordina) izanen da urteko, ordainketa kontzeptu guztiak barne.

**Laugarrena.-** Hedapena. Deialdi hau Nafar Lansare bitartez eta [www.leitza.eus](http://www.leitza.eus) udal webean argitaratuta zabalduko da. Halaber. Halaber, lanbide profiletan espezializatuak dauden sare sozialak erabiliko dira.

**Bosgarrena.-** Parte-hartzaileen betebeharrak.

5.1. Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Diplomatura, Lizentziatura edo Unibertsitate Gradua, titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.  
Titulua atzerrian lortuz gero, homologaturik dagoela frogatzen duen ziurtagiria eduki beharko da.
- b) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- c) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izatea.

d) Euskararen ezagutza: hautagaiek C1 maila dutela egiaztatu beharko dute, horretarako dagokion egiaztageria aurkeztuz edo berariaz maila hori frogatzeko egindako probaren bitartez.

e)

5.2. **Gehienez ere 30 puntu** dituzten merituak biltzea, honako parametro hauek kontuan hartuta:

a) Antzeko eginkizunetan egindako zerbitzuak (Gehienez: 12 puntu).

1. Administrazio Publiko orotan, Sozietate Publikoetan edo entitate pribatuetan egindako zerbitzuak, kirol instalazioen edo programazioen gerentzia, koordinazio zuzendaritza edo antzeko eginkizunetan, A edo B mailako postuetan Administrazioari dagokionez, edo 1., 2. edo 3. kotizazio taldeetan, Sozietate Publikoei edo Entitate Pribatuei dagokienez: urte bakoitzeko, 3 puntu. Gehienez, 12 puntu.

Oharrak:

- a) Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da (hilabetetik beherako denboraldirik ez da aintzat hartuko).
- b) Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.
- c) Iragarkia udal webean/prentsan argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

b) Postuaren eginkizunei loturiko prestakuntza ekintzetan parte hartu izana (Gehienez: 8 puntu).

1. Diplomatura, Gradua edo Lizentziatura:

- Ekonomia Zientzietako, Enpresa Zientzietako, Enpresen Administraziooko lizentziadunaren edo baliokideen titulua izatea: 1 puntu titulazio bakoitzeko, eta gehienez, 2 puntu. Deialdian sartzeko aukera ematen duten titulazioak direnean ere hartuko dira kontuan espezialitate horiek, beharrezkoa den titulazioaren baldintza izan arren.
- INEF lizentziatura edo gradua, Kirol Zientzietakoa edo baliokideak: 5 puntu. Deialdian sartzeko aukera ematen duten titulazioak direnean ere hartuko dira kontuan espezialitate horiek, beharrezkoa den titulazioaren baldintza izan arren.

2. Masterra Pertsonen Zuzendaritzan, Masterra Enpresa Publikoen Kudeaketan eta Zuzendaritzan, edo Masterra Kirol Enpresen Kudeaketan (60 ECTS): puntu 1 master bakoitzeko, eta gehienez, 2 puntu.

3. Lan Taldeen plangintza, kudeaketa eta garapena, zuzendaritza trebetasunak edo kirol kudeaketari buruzko ikastaroetan parte hartzea, gutxienez 70 orduko edo hortik gorako iraupenarekin: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko, eta gehienez, 2 puntu.

Oharrak:

a) Ordu kopururik adierazten ez bada ikastaroa ez da aintzat hartuko, ezta 70 ikastordu baino gutxiago dituztenak ere.

**b) 5.2.b) puntuko 1., 2. eta 3. atalen batura gehienez 8 puntu izaten ahalko da.**

5.3. Oinarri honetako 5.1 eta 5.2 ataletan adierazitako merezimenduen titulazio-baldintzak, instantziak aurkezten direnean, izangaiek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte.

5.4. Dokumentazio guztia kontratua formalizatu baino lehen egiaztatu beharko da, edo aurreko edozein unetan, auzitegiak hala eskatuz gero, jatorrizko agirien bidez edo notario edo administrazio bidez konpultsatutako kopien bidez.

**Seigarrena.-** Hautapen prozesuaren garapena eta balorazioa.

6.1. **Proba. 35 punturekin baloratua.** Proba hau %50eko edo hortik gorako puntuazioa lortzen duten pertsonak gaindituko dute.

Izangaiek proba praktikoa egin beharko dute Sozietatearen plangintzaz eta kudeaketaz, honako esparru hauetako batzuei buruz:

- Kirol jardueren eskaintza planifikatzea eta diseinatzea: irizpideak, xede-publikoa, jarduerak.
- Eskaintzaren gaineko marketina eta hedapena.
- Instalazioen eta baliabide teknikoaren kudeaketa.
- Giza Baliabideen antolaketa eta kudeaketa: monitore zerbitzuen antolaketa, instalazioetara sartzeko kontrola, eta instalazioen garbiketa eta mantentze lanak.
- Plangintza eta kudeaketa ekonomikoa.
- Ereduaren kalitatea: kalitatea eta erabiltzailearen gogobetetzea kudeatzeko sistemak diseinatu eta ezartzea.

6.2. **Defentsa. 35 punturekin baloratua.** Lehenengo proba (6.1 atala) gainditzeko duten pertsonak bakarrik egingo dute.

Hautagai bakoitzak ahoz adierazi eta defendatu beharko ditu ariketak epaimahaiaren aurrean, zehaztuko den egunean. Azalduko edukien koherentzia, udal proiektuarekiko egokitasuna, eta hautagaien gizarte- eta komunikazio-trebetasunak baloratuko dira. Ondoren, galderen txanda bat ezarriko da. Galderok azalduko gaiei buruzkoak izan daitezke, bai eta hautagaiaren curriculum vitaean jasotako alderdiei buruzkoak edo horri buruz sor daitezkeen zalantzei buruzkoak ere.

**Guztizko puntuazioa 100 puntukoa izango da,** 5. eta 6. ataletan lortutakoaren batuketari dagokiona.

## **ARAUDIA.**

**Lehena.-** Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea, argitaratzen denetik, **10 egun naturalekoa izanen da.** Deialdiaren testu osoa Udalaren weban egonen da ikusgai: [www.leitza.eus](http://www.leitza.eus).

Informazio gehiago Leitzako udalean: 948510009 edo Anikote Leitza, S.Ln: 623266582.

**Bigarrena.-** Eskabideak.

2.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Leitzako Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, aurrez aurre edo telematikoki.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Curriculum Vitae, lan bizitzarekin batera, eta C.V.ean azaldutakoa frogatzeko egokiak jotzen diren agiriak.
- NANaren edo izangaiaren nortasuna frogatzen duen agiria.
- Arestian aipaturiko merezimenduen frogagiriaren fotokopia.

Agiriok aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira deialdian onartu, eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe geldituko dira, galarazi gabe beren eskabidearen faltsukeria dela eta legokiekeen erantzukizuna.

**Hirugarrena.-** Izangaien onarpena. Behin betiko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda argitaratuko da, bai eta proba egiteko eguna, ordua eta lekua ere. Merezimenduak 6.1 proba gainditu duten pertsonentzat baino ez dira kontuan hartuko.

**Laugarrena.-** Epaimahai kalifikatzailea.

4.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Miren Latasa Barberena, Anikote Leitza, S.L.ko Grentea.

Ordezkoa: titularrak izendatzen duena.

Mahaikidea: Iñaki Zabalo Betelu, Leitzako Udalaren Kirol zinegotzia.

Ordezkoa: titularrak izendatzen duena.

Mahaikidea: Amaia Landa Sucunza, Lekunberriko Garapen Elkartearen enpresako gerentea.

4.2. Epaimahaiak aholkulari espezialistak hartzen ahalko ditu probetarako, eta horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

Leitzan, 2026ko ekainaren 10a.

## I ERANSKINA

### ANIKOTE LEITZA, S.L GERENTE POSTURAKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

<b>JAUN/ANDREA</b>		
<b>NAN/NIE</b>	<b>JAIOTEGUNA</b>	
<b>NAZIONALITATEA</b>	<b>EGUNGO HELBIDEA</b>	
<b>POSTA KODEA/HERRIA</b>	<b>SAKELAKO TELEFONOA</b>	<b>TELEFONO FINKOA</b>
<b>POSTA ELECTRONIKOA</b>		

Desgaitasunaren egiaztapena (bidezko denean, bakarrik):

- Desgaitasuna dut eta eskabidearekin batera horren frogagiria aurkezten dut.
- Desgaitasuna dut, eta, horrenbestez, azaltzen dudan egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (Beste orri batean).

#### AZALTZEN DUT:

Karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez dudala, eta ez dudala indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Baditudala deialdian eskatutako titulazioak, eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

#### ESKATZEN DUT:

Onar nazatela Anikote Leitza S.L. Enpresa Publikoko GERENTE gisa kontratatzeko izangaien zerrenda bat hautapoben bidez osatzeko deialdian.

Leitza, 2026ko .....aren ..... (e)an.

(Sinadura)

#### Datuen babesa:

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan emandako datu pertsonalak soilik erabiliko direla hautaketa prozesu honetako udal eskumenetan, eta Leitza Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan sartuko direla. Datu horietan sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira Erregistro Orokorrera zuzenduz (Elbarren, 1 - 31880 LEITZA